



UDAL GOBERNUAREN ADIERAZPENA

Atzo, ostirala arratsaldeko 20:30ak inguru Emakume Txokoa erasotua izan zen harri batekin ateko kristala apurtuz. Atea irekia zegoen eta jendea barruan kurtso batean.

Gertakizun tamalgarri honen aurrean udalak hurrengo adierazi nahi du:

- Arrasateko Udalak eraso irmoki salatzen du.
- Arrasateko Udalak erabateko gaitzespena erakutsi nahi du emakumeei egindako edozein indarkeria motaren aurka.
- Elkartasuna adierazi nahi diegu Emakume Txokoko langile eta erabiztaileei.
- Arrasateko Udalak ozenki esan nahi du jarrera erasotzaile, antidemokratiko, xenofobo eta sexistek ez dutela lekurik Arrasaten.